

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

318 Zb.
www.getxo.eus

>> 2017ko azaroa



Nabarmen ^{tzekoak}

- > GIGez arduratzeko bederatzi gazte bekadun
- > 2017ko GETXOEXPRESS sariak emanda
- > Eusko Jaurlaritzak gazteen itzulerarako programa onetsi du

Eusko Jaurlaritzak gazteen itzulerarako programa onetsi du

Eusko Jaurlaritzak programa berritzaile bat onartu du eta horren bidez 2017. urterako gazteak itzultzeko laguntzen deialdia onetsi du, gazteak EAEko lan-zentroetan kontratatzeko. Guztira, 1.766.667€ bideratuko dira. Programa aitzindaria da; kalitateko enplegua sustatzen du, beste herrialde edo autonomia-erkidego batean lanean ari diren 35 urtetik beherako gazteak Euskadira itzuli ahal izateko. Laguntza-ildoak bikoitza izango da: alde batetik, 35 urtetik beherakoak diren eta kanpoan gutxienez 12 hilabete lanean daramatzaten euskaldunak kontratatzen dituzten euskal enpresek diru-laguntza jasoko dute, soldataren zati bat ordaintzeko; bestetik, kontratatutako gazteek laguntza bat jaso ahal izango dute, joan-etorrien gastuak ordaintzeko.

Informazio gehiago: <http://cort.as/--nAa>

“Zure Europa” webgunea abian

Europar Batasunak Zure Europa webgunea jarri du abian, kide den herrialdeetan bizitzeko, lan egiteko, ikasteko edo bidaia-tzeko informazio praktikoarekin, EBeko hizkuntza nagusietan. Europan pertsonak aske lekuz alda badaitezke ere eta edozein pertsona kide den herrialdeetan mugitzeko eta bizitzeko eskubidea badu ere, herrialde batetik bestera joaterakoan hainbat izapide burukratiko hartu behar dira kontuan eta herrialde desberdinetako administrazioen artean

aldeak daude. Zure Europa plataformak izapide horiek errazteko mota guztietako informazioa eskaintzen du, fidagarria eta gaurkotua. Besteak beste, hurrengo gaietako informazioa aurki daitezke: bidaia-tzeko beharrezko agiriak, lan egiteko baimena, bizitzeko eskubidea eta lan eskaintza.

Informazio guztia:

<http://europa.eu/youreurope/citizens/travel/index.es.htm>



BEKAK SARIAK

BBK-Museoa beka. BBK Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoak hainbat gairi buruzko ikerketak garatzeko ikerketa beka emateko lehiaketa deitu dute. Egin beharrekoen artean daude Museoaren bilduman dauden euskal artisten monografiak eta katalogo arazoituen ikerketa, dekorazio-arte eta miniatura bilduma, eta Euskal Kulturaren Batzordea (1918-1937). Eskarera hilaen 15era arte Museoan. https://www.museobilbao.com/uploads/becas/archivo_eu-1-11.pdf

7 beka Mediaset-ean praktikak egiteko. Graduko eta Masterreko ikasketak egiten ari direnentzat, gutxienez kredituen %50a gaindituta edukiz gero. Ingelesa (C1) eskatzen da eta ikus-entzunezko Sistemen eta Telekomunikazioko Ingeniaritza, Informatika, Sistema Elektronikoa, Humanitateak eta Ondarea, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak ikasketei zuzenduta daude. Hiru motako beka dira eta epeak hilaen 7 eta 19ra bitartean amaituko dira, beka motaren arabera. <http://www.rnhempleo.mediaset.es/>

Gaztelekuaren programazioa

Azaroa

Hilak 3, ostirala; 14, asteartea, eta 25, larunbata: EMAKU-MEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO HILABETEAK

Hilak 8, asteazkena: MASTERCHEF: OREOZKO IZOZKIAK

Hilak 9, osteguna: TOPAKETA

Hilak 17, ostirala: TAILERRA: ESPEREOTIKO APURKETA

Hilak 18, larunbata: ESKULANA: HENNA ETA MANDALA TATUAJEAK

Hilak 18, larunbata, eta 19, igandea: ASTEBURU-PASA: URDUÑARA

Hilak 22, asteazkena: ESKULANA: ARGAZKI MARKOA

Hilak 24, ostirala: MASTERCHEF: BURRITO MEXIKARRAK

Hilak 28, asteartea: JAIA: GAUEGUN GAZTELEKUAREN 8. URTEURRENA

GauEgun gazteleku



Bidali zure iragarkia

Gazteentzako iragarkien atala gazteentzat erabilgarriak diren zerbitzuen eskaintzak zabaltzeko eta pertsona horien artean informazioaren elkartrukaketa bideratzeko doako zerbitzua da. Zure iragarkia argitaratu nahi baduzu <http://getxo.eu/eu/juventud/informacion-juvenil/envia-tu-anuncio> orrialdean aurkituko duzun formularioa bete. Iragarkiok hilaen behin Gazteak aldizkarian argitaratu eta Gazte Informazio Gune sarearen bitartez zabaltzen dira.



GIgez arduratzeko bederatzi gazte bekadun

Udaleko Gazteria Zerbitzuak 14 eta 30 urte bitarteko 9 gazte hautatu ditu egun herrian dauden bederatzi gazte informazio gunez beka batzuen bidez arduratzeko. Aukeraturako bekadunak honako hauek dira: Nadia Jañez Martínez (Algortako Kultur Etxea), Nerea Martín del Moral (San Nikolas Ikastola), Mikel Álvarez Azpitarte (Aixerrota ikastetxea), Irene Itziar Osuna Díez (Musika Eskola), Itsasne Madariaga Urzaa (Andra Mariko kiroldegia), Mikel Fernandez Marañón

(Fadura GLHBI), June Garrastatxu Tejada (BHI Julio Caro Baroja), Yago Osuna Díez (Fadura kiroldegia) eta Oihane Páez Loizaga (Azkorri ikastetxea). Ohi bezala, hautatutako gazteak arduratuko dira 2017/2018ko ikasturtean zehar herriko gazte informazio guneak eguneraturik mantentzeaz, eta baita betetako informazio behar posibleak atzemateaz edo 2017/2018ko ikasturtean Gazteria Sailerako proposatutakoak ere.

2017ko GETXOEXPRESS sariak emanda

25 talderen partaidetza izan duen Getxoko film labur *express*-en bigarren jaialdiak badiu irabazleak. 2.100€tako sariak pasa den urriaren 22an banatu ziren Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Gala horretan, grabatutako 25 film labur ere proiektatu ziren, hain zuzen ere, *Jatorria* gaiari buruz 44 ordutan ekoizitakoak.

Lan horiek ikusi ostean, Borja Crespok (zinema-zuzendaria), Itziar Ituñok (aktorea) eta Begoña Vicariok (Arte Ederretan doktorea UPV/EHU) osatutako jaialdiko epaimahaiak honako sari hauek eman zituen:

• 1000 eurotan baloratutako lehen saria:

LUME, UGS Express taldearen eskutik. Zuzendaria: Adrián Nogales; ekoizlea: Iñigo Larreina; gidoiaria: Adrián Nogales; kamera: Iñigo Larreina; aktoreak: David

Blyth; beste batzuk: muntaia – Blyth anai-arrebak.

Laburpena: Kevin Feraud izeneko gaztea basoak erretzearen ardura-duna da; jatorria: pospolo bat.

• 800 eurotan baloratutako bigarren saria:

Los Desamparados, LOS CINCO taldearen eskutik. Zuzendaria, ekoizlea, gidoiaria, aktorea eta kamera: Eduardo Sánchez Petite; kamera eta aktorea: Marta González Simón; aktoreak: Sandra Sánchez Petite, Jon Taranilla Sánchez, Ander Taranilla Sánchez.

• 300 eurotan baloratutako ikuslearen saria eta autozine saria:

Paseos Darwinistas, SUKOLEGAS taldearen eskutik. Zuzendaria: Asier Redondo; ekoizlea: Eder Dominguez; gidoiaria: Josu Rodriguez; kamera: Asier Redondo; eta aktoreak: Eder Dominguez, Mikel Gabinia, Gorka Manso, Josu Rodriguez.

• Getxoko errealdadore onenaren saria

El origen de una nación, KLARA-COLES taldearen eskutik. Zuzendaria: Clara Ibañez; ekoizlea: Xabier Leal; gidoiaria: Luis Diego García; kamera: Xabier Leal; aktoreak: Luis Diego García, Nagore, Jon; beste batzuk: Igor Cruchaga. Getxoexpressek bere lehenengo ekitaldia 2016an egin zuen *Wanted* Ideien Lehiaketaren sariari esker. Lortutako arrakasta ikusita, proiektuaren sustatzaileek GetxoExpress Elkarte osatu dute, eta aurten lehenengo aldiz jaialdia Gazte eta Sustapen Ekonomikoko sailen eta Kultur Etxearen laguntzarekin ospatu da, aipatutako elkartearekin elkarlanean. Informazio gehiago: www.getxoexpress.com webgunean, www.facebook.com/getxoexpress, [@Getxo_Express](https://twitter.com/Getxo_Express) eta info@getxoexpress.com helbide elektronikoen.

